

# **BALIO PROPOSAMENA**

## **ZER ESKAINTZEN DUGU? ZERK BEREIZTEN GAITU?**

Guk aukeratutako ideia aplikazioa bat izan da, izan ere, gure helburua jendeak beste herrialdeko biztanleekin duten komunikazioa erraztea da eta aplikazio baten bidez denok mugikorra edo gailu elektronikoa dugunez, eskuragarria da jendearen gehiengoarentzat. Gure produktua itzultzaile bat erantsita duen sare sozial bat da, hortaz, jende berria ezagutzeko aukera ematen du, baina ukitu ezberdin bat du berritzailea bihurtzen duena eta gerora azalduko dutena nire taldekideek. Konturatu gara kanpoko jendearekin komunikazio bat mantentzea ez dela erraza, honetarako sortu dugu sare sozial bat itzultzaile batekin hizkuntza traba bat ez izateko. Aplikazio honek bi sail nagusi ditu, enpresarien arteko komunikazioa emateko eta lagunak egiteko.

Gure produktuak munduko beste herrialdeetako jendearekin harremanetan jartzeko aukera ematen du. Alde batetik, bi pertsona zailtasunik gabe komunikatu daitezke, horretarako, bakoitzak bere hizkuntzan hitz egiten du eta besteari bere hizkuntzan iritsiko zaio mezua. Adibidez, euskaldun batek frantses batekin hitzegitean, bakoitzak bere hizkuntza aukeratu du. Horrela, euskaldunak euskaraz bidaliko dio mezua frantsesari eta frantsesak mezu hori frantsesez jasoko du; eta, alderantziz.

Bestetik, munduan zehar dauden txateatzeko aplikazioen eskaintza guztiak aplikazio batean daude. Lehen esan bezala, enpresek elkar ulertzeko gaitasuna izango duten bezala, lagunak egiteko ere erabilgarria izango da.

## **GURE BALIOA?**

Gure balio kuantitatiboari dagokionez, hasiera batean zerbitzu hau dohainik izango da, baina zerbitzu edo hizkuntza gehiago lortzeko hilabeteko kuota bat ordaindu beharko da. Hemen premium-zerbitzua sartzen da, oinarrezko zerbitzuez gain, beste batzuk eskuratzeko (beste hizkuntza batzuk, enpresen sektorea...) ordaindu behar den hileroko kuota.

## **NORI ZUZENDUTA?**

Bestalde, gure aplikazioa bezero mota guztientzat dago bideratuta, adina, sexua, jaioterria... kontuan eduki gabe. Pandemia dela eta aldatu ditugun gure komunikazio ohituretz baliatuko gara eta beste sektore batzuetara ere bideratuko dugu gure aplikazioa, adinekoak adibidez.